

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Foruzaingo, Polizia Nazional eta Iruñeko Udaltzaingoaen plan berezia Eguberrietan ebasketak eta lapurretak izan ez daitezzen

la ehun bat agentek parte hartuko dute kaleetan eta merkataritza nahiz aisialdiko guneetan zaintza areagotzeko dispositiboan

Martes, 09 de diciembre de 2014

Polizia Nazionala, Foruzaingoa eta Iruñeko Udaltzaingoa elkarlanean ariko dira prebentziozko lau plan abian jartzeko datozen Eguberrietan. Lokaletan, etxebizitzetan eta haien eranskinetan ebasketak eta lapurretak ez izateko planak dira.

Horretarako, kale, merkataritza nahiz aisialdiko guneetako zaintza eta poliziaren presentzia areagotuko dute. Kanpaina abenduaren 10etik urtarrilaren 10era egingo da, eta hiru polizietako 93 agentek parte hartuko dute bertan.

Iruñeko alkate Enrique Mayak, Gobernuko ordezkari Carmen Albak eta Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilari Javier Morrássek aurkeztu dituzte gaur goizean poliziek prestatutako prebentziozko planen xehetasunak.

Horrenbestez, honako hau lortu nahi da: ebasketa eta lapurreten delinkuentzia prebenitzea; polizien arteko koordinazioa hobetzen duten jarduera-protokoloak finkatzea; poliziaren presentzia areagotzea eta bizilagun, merkataritza eta segurtasun pribatuarekin informazioa trukatzeko; eta herritarrek nahiz merkatariek duten sentipena hobetzea. Lau planek polizien ekintza-sorta bat deskribatzen dute delitu gehien egiten den zonalde, ordu-tarte eta asteko egunen arabera, eta baita haiek prebenitzeko neurriak abian jartzea ere.

Ebasketak prebenitzea

Saltokietako ebasketak prebenitzeko planak, ebasketako delitu eta falta gehien egiten den merkataritza-tokietan polizia gehiago izatea aurreikusten du, horretarako uniformeak eta kaleko arropa jantzitako polizia asko jarriz, bai eta saltokietako arduradunekin nahiz segurtasun pribatuko langileekin komunikazio ona izatea ere.

Hogeita hamabi poliziek parte hartuko dute, guztira, Iruñeko kaleetan



Zaintza pertsonak pilatzen diren tokietan areagotuko da.

egingo den plan horretan.

Bestalde, aisialdiko lokalak, tabernak eta dantzalekuak dauden tokietan polizia gehiago jarriko da, asteburu eta gauetan bereziki; izan ere, une horietan gertatzen dira ebasketako delitu eta falta asko, jende asko dabilela baliatuz.

Hiru polizietako hamahiru agente kaleko arroparekin ibiliko dira delitu gehien gertatzen den tokietan.

Prebentzio-plana indarra erabiltzen den etxebizitzetako lapurretarako

Era honetako delituetan espezializatutako talde kriminal mugikor bat baino gehiago desegin bada ere aurten, Iruñeko polizia ezberdinek jarduten duten puntu nagusietako bat izaten jarraitzen du.

Hori dela-eta, polizia gehiago jarriko da, zuhurtzia handiarekin, delitu gehieneko tokietan; CNPren Poliziaren Esku Hartzeko Unitateak egindako geldikako kontrol-dispositiboak indartuko dira.

Hiru polizietako hamasei agente etxebizitzetako indarkeriazko lapurreten prebentziozko plan hori egikaritzeko ariko dira lanean buru-belarri.

Aldiz, lokaletan eta etxebizitza eranskinetan indarkeriazko lapurretak ez izateko prebentzio-dispositiboa, delitu-tipologia hori gehien dagoen hiriko tokietan patruilatzeak ugarituz bideratuko da, prebentzioa sustatuz eta geldikako kontrol-dispositiboak ezartzeko, era horretako lapurretak egiten ari diren ibilgailu nahiz pertsonak hautemate aldera. Guztira, hamasei polizia-agentek egikaritzeko dute Plan hori.